

Amerika osoa krisi gorrian

Deia, 1983-07-09.

Latinamerikarrek 300 mila milioe dolarreko zorra. Hau da Latinamerikarrek egin berria duten azterketak erakutsi duen leize-zulo ekonomikoa.

Errua, munduko Herri Industrializatuei botatzen diete.

Bolibar jaio zenaren bigarren mendehurrenak sortu du eraginik, eta horien artean, "Latinamerikako pentsaera politikoa" gai dela Caracas-en uztailearen 2an amaitu da batzar handi eta garrantzitsua. Bildu direnak neurgailu: Ameriketako 30 herrietako 250 ordezkari izan dira partaideak eta horiek bereziak: Lehendakari izanak, alderdi politikoetako buruak, unibertsitariak, ekonomilariak, eta ezkerretik eskuinerarteko pentsamolde guztietakoak, marxistak, komunistak (Cuba hor zen), sozialista moderatuak, totalitario eta demokratak; baita militarrek ere, jeneral bat; edo beste tarteko dela.

Honelako bilerarik ez da inoiz eratu.

Bolibarrek amesten zuen *Hegoamerikako Herrien Federazioak* badu oraindik eraginik.

Batzar honetatik irten den "Caracaseko Deklarazioa"k dei egiten die lurralde zabal hau osatzen duteneko gobernuari: Latinamerikako herriek komunitate estu bat osatzeko bidea egin behar dutela lehenbaitlehen, gero integrazioarakoan sartzeko. Bidenabar bezala, baina firmeki, adierazten dute honetarako ez dutela arrotzen eskurik behar eta nahi ere: eta gaur Ertamerikan dituzten auzien konponketa batetara iristeko, bertako herriak nahiko direla.

Eta USA-ri egin diote oharra.

Latinamerikarrek duten delako "Deuda exterior" ikaragarria da, gaurko krisiaren iturburua hemen dago. Handitzen joan den *zorra 300 mila milioe dolarretako izatera heldu baita*. Hiru herri, Mexico, Brasil eta Argentina, berez hain aberatsak direnak, dira zordun haundienak; eta Venezuela ere ez dabil urrun. Arrazoia? Trukeak egiten diren kondizio ezberdinak, "horiek ari dira gure herriak hondatzen, eta hemen dago gure herrien miseriaren iturri nagusia".

Banku Internazionalak, bere aldetik, egoera hau gainditzeko ezarri dituzten reajuste ekonomikoa herri horiek jasan ezin dituztenak omen dira. Latinamerikarrek berez dituzten ajeak (batzu zaharrak, kolonia zirenekoak) tarteko dira segur aski, baina USAren politikak, batez ere Reagan-en denborako horiek, badu erantzun beharrik.

Eta, azken finean, Hegoamerikako kezka nagusia, ideolojiko da, eta USAren urduritasuna oso handia.

Ia estuasun honek Bolibarren eraginari baiezkota ematen dion.